



Usurbilgo Udala

Data: 2023/10/10

2023KO URRIAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Ibon Goikoetxea Retegi (2023ko urriaren 10eko 2023/1915 Foru Aginduaren baitan).

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Ivan Iriondo Axpe.

Usurbilen, 2023ko urriaren 10ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2024RAKO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA.

Batzarkideek Antolakuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/10/10

“Gorka Lizarraga Kontuhartzaileak Koste eta estaldura estimazioen inguruko azalpenak eman ditu. Bestalde bidalitako Ordenantza proposameneko kiroldegiko abonoko prezio publikoetan borobiltzeagatik behin betiko taula berria helarazi die bertaratutakoei. Honekin batera, Imanol Etxeberria aparejadoreak egindako ur zerbitzuaren koste eta dirusarreraren txostena ere banatu da.

Gobernu taldearen ordezkari gisa, Agurtzane Solaberrieta alkateak 2024urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu du urriaren 4ean egindako ez-ohiko Ogasun Batzordean. Bere hitzetan, 2024 urterako proposatzen dituzten zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketa nagusiak honakoak dira:

- Batetik, irizpide orokor gisa proposatzen du **zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren arabera igotzea, hau da %2,9 igotzea.**
- Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, zenbait **salbuespen** egingo dira:
 - Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonua %4 igoko dira.
 - Uraren arazketa kontzeptu berri bat sartu da, Añarberen aldetik azken urteetan egindako inbertsioak direla eta, kontzeptu honekiko gastuak handitu baitira eta orain arte Udalak ez ditu kobratu. Ondorioz, ur-kontsumoaren araberako %20ko arazketa zerbitzu kontzeptu berria sartu da. Urtero igotzeko asmoa dago estolderiaren mailara(ur-kontsumoaren %75) iritsi arte datozen urteetan.
 - Hondakinen kasuan errefusaren kanon gastuari aurre egiteko inerte kontzeptu berria sartu da, honek ekarriko du, KPI igoera kontutan izanda, guztira hondakinen tasa %3,4 igoko dela estimatzea.
 - Udajolaseko tasari dagokionez kosteak asko igo dira, eta proposamena da orain arte bezala zerbitzuaren estaldura maila %50eko izatea. Alabaina, hori horrela izatera iristeko igoera progresiboa egitea aurreikusten da datozen urteetan eta, honela, 2024rako prezioa 105 euroan gelditzea.
 - Haurreskolari dagokionez ez da igoerarik emango, 2023an zehar egin baita zerbitzu honen doiketa.
 - Bisita gidatuen prezio publiko berria sortu da
- Hobariei dagokionez, 11. ordenantzaren LGSaren doiketa egin da taulan, gaur egun Langilearteko Gutxiengo Soldata urteko 15.120 eurokoa baita.
- Ondasun Higiezinaren Zergari dagokionez %40ko hobari berri bat proposatu da energia berriztagarriengatik egindako obra bat burutzen denan, urte batean soilik aplikatuko dena.

Petra Romero PSE-ko kideak, ontzat emanditu jasotako azalpenak eta udalbatzarrerako proposamena baloratu behar duela eta, batzordean abstentzio botoa emango duela aurreratu du.

EAJko kide Xabier Otxoak Hondakinen tasaren %4ko igoera proposatu du, estaldura maila baxua duela iritzita, eta berau igo behar dela aipatuz.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/10/10

Agurtzane Solaberrieta alkateak EAJ-k egindako proposamena ontzat hartu du eta Ordennatzen proposamenean txertauko duela esan du.

2024rako proposatzen diren ordenantza fiskalen xehetasunak emanik eta batzordekideen artean aztertu ondoren, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2024ko Ordenantza fiskalak hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea. Aldeko 4 bozka (EH Bildu eta EAJ) eta abstentzio bat (PSE) eman dira. Ez da aurkako bozkarik izan.

Irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz onartu du 2024rako ordenantza fiskalak hasieraz onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoa: Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

2.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. ENPRESARI ESLEITURIKO EXEKUZIO OBRA KONTRATUA SUNTSITZEA.

Batzarkideek Lurraldea batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: ID.05/2021-0054

AURREKARIAK

2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzeke espedienteari onespina eman zion. 2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari egin zitzaion eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu zen, 1.953.312,02 eurotan (BEZa salbuetsita). Ezarritako bermea 97.665,60 eurokoa izan zen eta zuinketa akta 2021eko abenduaren 16an sinatu zen.

2022ko urtarrilaren 14ko 2022/30 Alkatetza Dekretu bidez (gerora Udalbatza Plenoak 2022ko urtarrilaren 27an egindako ohiko bilkuran berretsia), kontratu hau aldatzea onetsi zen, obra gehigarriak txertatzeko. Adaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa izan zen, hau da, esleipen



Usurbilgo Udala

Data: 2023/10/10

prezioarekiko %2,52ko igoera. Esleipendunak 2.458,14 eurotan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea. Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran kontratu hau bigarren aldiz aldatzea erabaki zuen, obra gehigarriak zein funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko. Aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa izan zen, hau da, esleipen prezioarekiko %1,52ko igoera. Esleipendunak 1.486,97 euroan handitu zuen kontratuaren behin betiko bermea.

Udalbatza Plenoak 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkuran erabaki zuen obra kontratu honen prezioen salbuespenezko berrikuspena egiteko behin-behineko baimena ematea eta salbuespenezko berrikuspena kalkulatzeko irizpideen arabera zenbatekoa 136.374,27 eurotako (BEZa salbuetsita) dela zehaztea. Kontratatari emandako entzunaldi epean ez zuen alegaziorik aurkeztu.

2023ko irailaren 26ko datuz Obra Zuzendaritzak txostena osatu du, obra honen egoera zein den zehaztuz. Bertan adierazten denez 2022ko abenduko obra ziurtagirian obraren %98,2a ziurtaturik zegoen eta gaur egun obrak amaitu gabe jarraitzen du.

Usurbilgo udal Arkitekto eta Aparejadoreak 2023ko irailaren 29an sinaturiko txosten teknikoan 2022ko abendutik gaur arte obraren egoera zein den zehaztu da: onartu diren obra ziurtagiriak, egin gabe geratu diren lanak eta obraren gauzatze epearen atzerapen honek sortu dituen eta ditzazkeen balizko kalteen aurre-zerrendatzea. Dena den, kalte horiek guztiz zehaztean egin beharko da kuantifikazio ekonomikoa. Halaber, egoera horren aurrean, obra honen kontratua suntsiarazteko proposamena jasotzen du, kontratistak 2022ko abendutik obra guztiz utzia duela iritzita.

Idazkaritzako txosten juridikoa osatu da proposamen honi dagokion prozedura zehaztuz. Hain zuzen ere Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak jasotzen dituen kontratistaren ardurako epe atzerapena eta kontratua suntsiarazteko prozedura, bermea inkautatzea eta, hala badagokio, Udalari eragindako kalte-galerak likidatzeko proposamenarekin.

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2023ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Iratxe Begiristain, Oskar Santamaria, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratuaren (Esp.zkia: ID.05/2021-0054) suntsiarazpena erabakitzeko prozedurari hasiera ematea, kontratistari egotz dakioken kontratuaren epea ez betetzeagatik, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.1 d) artikuluan eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 109. artikuluan xedatutakoaren babesean eta SPKLren



Usurbilgo Udala

Data: 2023/10/10

213.3. artikuluan ezarritako ondorioekin (bermea inkautatzea eta, hala badagokio, Udalari eragindako kalte-galerak likidatzea).

BIGARRENA. Kontratistari eta abal-emaileari behin-behineko proposamen hau helarazi eta entzunaldia ematea, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun naturaleko epean egokitzat jotzen ditu(zte)en alegazioak edo agiriak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA. Emandako epean alegazioak egongo balira, alegazio hauek udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoei helaraztea bakoitzak dagokion txostena egin eta ondoren kontratazio-organuak aztertu eta ebatz dezan.

LAUGARRENA. Emandako epean kontratista suntsiarazpen honen aurka jarriko balitz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren diktamena eskatzea, ondoren kontratazio-organuak aztertu eta ebatz dezan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.